



JARRAIBIDEAK, ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIARENAK, IKASTURTEA ANTOLATZEKO DIRENAK HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA (HLE), FISIOTERAPIAKO ESPEZIALISTA, OKUPAZIO-TERAPIAKO ESPEZIALISTA, ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE (ZHI) ETA LOGOPEDA DIREN HEZITZAILE LAN-KONTRATUDUNEI DAGOKIENEZ, ETA ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO (EHI) IRAKASLEEI DAGOKIENEZ

2023/2024 IKASTURTEA

Hezkuntza Sailak ezarri egin ditu 2023/2024 ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako, Bigarren Hezkuntzako institutueta, Lanbide Heziketako ikastetxeetako eta Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetako jarduerak antolatzeari buruzko oinarritzko arauak, Hezkuntza Sailburuordetzaren eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren ebazpen banaren bidez. Ebazpen horiek hezitzaile lan-kontratudunei zein irakasleei eragiten diete.

Jarraibide hauek, aipatutako ebazpenen osagarriak eta aldi berean argitaratuak, helburu dute 2023/2024 ikasturteko funtzionamendu-alderdiak zehaztea, kolektibo horiei dagokienez.

Jarraibide hauek gauzatu behar dira langileen lan-baldintzak errespetatuz; izan ere, HLE-en, fisioterapeuten, okupazio-terapeuten eta ZHIen kasuetan, baldintza horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-legepeko irakasle eta hezitzaileentzako hitzarmen kolektiboan ezarrita daude (EHAA, 114. zk., 2004.06.17) eta ondorengo aldatetak (EHAA, 183. zk., 2020.09.16). Ikusi II. eranskina (funtzioak) eta 17. artikulua (ordutegiak).

Jarraibide hauen xede diren berritzeguneari lotutako lan-kontratuko langileak dagokien berritzegunearen mende daude funtzionalki eta organikoki. Dena den, eguneroko lanerako eta egin beharreko kudeaketa gehienetarako ikastetxeko zuzendaritza da arduraduna.

Hezitzaileek lankidetzan jardungo dute HPBak dituzten ikasleekiko hezkuntza-erantzunean inplikaturako gainerako profesionalekin, irakasle tutoreekin eta irakasle aholkulari edo orientatzaileekin. Edozelan ere, tutoreak du horren guztiaren erantzukizuna duena. EHI-logopedek ere parte hartuko dute hezkuntza-laguntzako berriazko premiak (HLBP) dituzten ikasleekiko erantzunean. Profesional guztien esku-hartzeak ikasle bakoitzaren Jarduera Plan Pertsonalizatuan (hemendik aurrera JPP) edo curriculumaren egokitzapenean jasoko dira, eta bertan zehaztuko dira aplikatu beharreko laguntza-neurriak. Inplikaturako profesionalak koordinatu egingo dira JPParen jarraipena eta ebaluazioa egiteko.



Ikasgela da hezkuntzako profesional guztiek esku hartzeko lehentasunezko espazio naturala. Salbuespen gisa, esku-hartzea gauzatzeko beste espazio bereizi bat behar denean, ikastetxeei eskatuko zaie horretarako leku apropos bat gaitzeko. Era berean, profesionalen esku jarri beharko dituzte material suntsikorra eta ikastetxeko bestelako tresna arruntak ere (ordenagailua, telefonoa...).

Ikastetxeak bere gain hartu beharko du langileek behar duten berariazko materialaren kostua, zenbateko horrek 150 euroak gainditzen ez baditu. Halaber, mailegatutako laguntza-produktuen mantentzea zaindu eta baldintza egokietan itzuli egin beharko ditu behar ez direnean. Mantentze-lan horrek nolabaiteko kostu ekonomikoa badakar, 150 eurora arteko zenbatekoa estaliko du.

Jokabidearen nahasmendu larriak dituzten ikasleak dauden ikastetxeetan, krisialdi-egoeren aurreko jarduketa-protokolo bat ezarri beharko da, zeinetan ikastetxeko profesional guztiak inplikatu behar diren. Oro har, jokabidearen nahasmenduak irakasle arruntek artatu behar dituzte hasiera batean, eta, ondoren, PT irakasleek. HLE-ek, ikastetxeko beste edozein profesionalek bezala, autoerregulazioa sustatzeko zereginetan lagundu ahal izango dute dagokion ikaslearen JPPan hala jasota badago.

Ikastetxeek ikasle guztiak izan beharko dituzte kontuan, HPBak dituztenak barne, egingo dituzten jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak hautatzerakoan. Jarduerak aurrerapen nahikoaz aurreikusi beharko dira, inor kanpoan utzi gabe. Ikastetxearen berezko baliabideen arabera (baliabide pertsonalak eta horien eskuragarritasuna) erabakiko da zein diren egokienak, eta Ikastetxearen Urteko Planean jasoko dira.

PROFESIONAL BAKOITZAREN JARDUKETA-ESPARRUA

Aurretik adierazi dugun moduan, jarraibide hauen xede diren langileek esku hartzen dute beharra duten ikasleekiko hezkuntza-erantzunean, ikaslearen JPParen edo curriculumaren egokitzapenaren esparruan.

Kolektibo bakoitzaren zeregin zehatzak berrikuspen-prozesuan daude. Hori dela eta, aldaketarik adosten ez den bitartean, indarreko zereginak hitzarmen kolektiboan jasotakoak izango dira. Nolanahi ere, eta oro har:

HLE-ek HLE-en beharra duten eta HPBak dituzten ikasleekiko hezkuntza-erantzunean parte hartuko dute, eta, horretarako, esleituta dituzten ikasleen *Autonomia eta irisgarritasuna garatzeko programa* beteko dute, HLBPen aholkularitzak ezarritako lan-plangintzaren arabera. Programa eskola-egunetan zehar gauzatu da eta barne hartuko ditu lekualdatzeak, transferentziak, motrizitate xehea, higiene pertsonala, elikadura, segurtasuna, autoerregulazioa eta eginkizunetan zentratzea.

Fisioterapiako espezialistek HPBak dituzten ikasleekiko hezkuntza-erantzunean parte hartuko dute baldin eta ikasleek curriculumean egokitzapena behar badute mugimendu-defizit larriak eragindako premiak direla-eta. Langile horien helburua izango da ikasle horiei parte hartzen eta curriculum arruntean edo espezifikotan sartzen laguntzea, eta hezkuntza-ingurune naturalean (ikasgela, jolastokia, komuna, korridoreak...) eta eskola-errutinetan oinarritutako



esku-hartzea eredu hartuta egingo dute. Gaitasun funtzionalak garatzeko esku-hartzea, gehienez 30 edo 45 minutuko asteko bi saiotan egingo da.

Okupazio-terapiako espezialistek HPBak dituzten ikasleekiko hezkuntza-erantzunean parte hartuko dute, ikasleek desgaitasunei lotutako zailtasunak dituztenean okupazio-jardunean. Langile horien helburua izango da ikasle horiei parte hartzeko erraztasunak ematea, eta curriculum arruntean edo espezifikoan sarbidea erraztea. Horretarako, inguruneko oztopoak baloratuko dituzte, curriculumerako sarbidea errazteko behar dituzten laguntza-produktuak aukeratuko dituzte eta horiek erabiltzeko orientabideak emango dituzte. Era berean, laguntza-produktu horiek kudeatzen lagunduko dute (eskaera, inbentarioa, mailegua, lekualdaketa eta konponketak). Lurraldeko biltegiaren arduradunak hartuko du bere gain kudeaketa hori.

ZHiek ikasle gor edo gor-itsuekiko hezkuntza-erantzunean parte hartuko dute (gidari-interprete gisa), ikasleek zeinu-hizkuntza komunikazio-hizkuntza gisa behar baldin badute beren irakaspen-ikaspen prozesuan. Harreman estua izango dute irakasleekin eta JPParen esparruan parte hartzen duten gainerako profesionalekin, ikasleak hezkuntza-testuinguruan ikasteko, komunikatzeko eta parte hartzeko dituen oztopoak gaindituz edo murriztuz. Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Helduen Hezkuntza Iraunkorreko irakaskuntza arautuetan esku hartzen dute, eta salbuespen gisa aplikatu daiteke nahitaezko irakaskuntzetan, Hezkuntza Saileko organo eskudunek berariazko baimena eman ondoren.

EHI irakasleek eta logopeda lan-kontratudunek eginkizun berberak dituzte, baina lotura desberdina dute Hezkuntza Sailarekin. Profesional horiek lan egingo dute komunikazioaren eta hizkuntzaren esparruko HLBPak dituzten ikasleekin.

Profesional horiek beren eginkizunak gauzatu dituzte berritzegune baten ibilbidean, edo sartuta egongo dira ikastetxe edo lurralde-ordezkaritza baten lanpostu-zerrendan (LZ), eta mugitu ahal izango dira eremuko beharren arabera.

HPBak dituzten ikasleak artatzeko prozesua eta irizpideak oinarri izango dute 15. dokumentuan ezarritakoa: *"Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapena esku hartzeko eredu inklusiboaren barruan"*.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Jarraibide hauen xede diren profesional guztien lan-egutegia irailaren lehendabiziko lanegunean hasi eta ekainaren azken lanegunean bukatuko da.

2023ko urriaren 1a baino lehen, langile bakoitzak bere egutegia eta ordutegia jasoko ditu.

HLE-en berariazko alderdiak:

- HLE-en egutegia atxikita dagoen ikastetxearena izango da. Ikastetxe batean baino gehiagotan lan egiten badute (inola ere ezin dute egin bitan baino gehiagotan), asteko lanaldiaren zatirik handiena egiten duten ikastetxearen egutegia izango da.



- Lanaldia lan egiten duten ikastetxearena edo ikastetxeena izango da, goiz eta arratsaldekoa edo trinkoa. Lanaldi trinkoan lan-plangintza egokituko da, ikasle guztiei behar bezalako arreta ematen dietela bermatzeko.
- HLE-ek ikastetxean beteko duten ordutegia bat etorriko da lan egiten duten ikastetxeko ikasleen sarrerako eta irteerako orduekin.
- Hedatze Programara atxikitako ikasleen kasuan, HLE-ek curriculumeko errefortzu-jardueren ordutegian artatuko dituzte ikasleak.

Fisioterapeuten berriazko alderdiak:

- Fisioterapiako espezialisten egutegia berritzegunearena izango da, eta irakasleen antzerako dedikazio-erregimena izango du.
- Ikasleekiko esku-hartzea ikasturtearekin batera hasi eta hezkuntzako gainerako profesionalen kolektiboek bukatzen duten egunean amaituko da.
- Iraileko lehen hamabostaldian zehar, zeregin hauek beteko dituzte: ikasleen mugimendu-garapenaren hasierako balorazioak, beste profesionalekiko koordinazioa, urteko plana landu...
- Ekaineko azken egunetan, banakako txostenak eta urteko memoria egingo dituzte, gero HLBPen aholkularitzei entregatu beharko dizkiete.
- Lanaldia goiz eta arratsaldekoa edo trinkoa izango da, lan egiten duten ikastetxeetako lanaldiaren arabera. Ordutegia beti egokituko da ikastetxeenera eta HPBak dituzten ikasleenera egokitu gabeko esparruetan ikasleen parte-hartzeari ez eragiteko. Nolanahi ere, ostiraletako ordutegia 09:00etatik 15:00etara bitartekoa izango da, eta azken bi saioak berritzeguneetako HLBPen aholkularitzekin eta gainerako fisioterapeutekin koordinazio-lanak egitera bideratu ahalko dira, koordinaziorako lurralde-planaren arabera.
- Fisioterapiako espezialistek lanaldia hasiko dute ikasleekin arreta zuzena abiarazten duten ikastetxean, nahiz eta hori ez izan beren erreferentziazko ikastetxea.

Okupazio-terapeuten berriazko alderdiak:

- Okupazio-terapiako espezialisten egutegia berritzegunearena izango da, eta irakasleen antzerako dedikazio-erregimena izango du.
- Ikasleekiko esku-hartzea ikasturtearekin batera hasi eta hezkuntzako gainerako profesionalen kolektiboek bukatzen duten egunean amaituko da.
- Irailean zehar, zeregin hauek beteko dituzte: plangintza, ikasleen balorazioak, materialaren lekualdatzea, koordinazioa, etab.
- Ekainean eskolak bukatu ondoren, banakako txostenak egingo dituzte, gero irakasle tutoreei eta HLBPen aholkularitzei entregatu beharrekoak, baita urteko memoria ere.
- Lanaldia goiz eta arratsaldekoa edo trinkoa izango da, lan egiten duten berritzeguneko lanaldiaren arabera. Ostiraletako ordutegia 09:00etatik 15:00etara bitartekoa izango da.



- Okupazio-terapiako espezialistek lanaldia hasiko dute beren eguneroko jarduera hasten duten ikastetxean, berritzegunean edo material-biltegian, nahiz eta hori ez izan beren erreferentziazko ikastetxea.

ZHlen berariazko alderdiak:

- ZHlen egutegia atxikita dauden ikastetxe publikoarena izango da. Ikastetxe batean baino gehiagotan lan egiten badute, egutegia asteko lanaldiaren zatirik handiena egiten duten ikastetxearena izango da.
- Ikasleekiko esku-hartzea ikasturtearekin batera hasi eta hezkuntzako gainerako profesionalen kolektiboek bukatzen duten egunean amaituko da.
- Ikasleak irailean hasi arte, irakasle taldearekin koordinatuko dira, ikasleekiko hezkuntza-erantzunak prestatzeko (irakasleen sentsibilizazioa, materialen aurreikuspena irakasgaiak prestatzeko, arreta-ordutegia prestatzea, etab.).
- Ekainean eskolak bukatu ondoren, banakako txostenak egingo dituzte, gero irakasle tutoreei, HLBPen aholkularitzei eta ikasle gorren arretarako lurralde-koordinatzaileari entregatu beharko dizkiete.
- Ikastetxean egon beharreko asteko lanaldia astean 30 ordukoa izango da, eta horietatik gehienez 25 izango dira ikasleen arreta zuzenekoak.
- Lanaldia lan egiten duten ikastetxearena edo ikastetxeena izango da, goiz eta arratsaldekoa edo trinkoa. Lanaldi trinkoan lan-plangintza egokituko da, ikasle guztiei behar bezalako arreta ematen dietela bermatzeko.
- ZHlek ikasleentzako interpretazioa hasi edo bukatzen duten ikastetxean hasi eta bukatuko dute lanaldia.
- Langileen lan-osasunaren mesedetan, ahal den neurrian, ez dira interpretazio-lanetan 4 orduz baino gehiagoz arituko, etenik gabe, eta gutxieneko atsedenaldiak bermatuko dira lana baldintza onenetan egin dezaten.

EHI-logopeden berariazko alderdiak:

- Kolektibo horren egutegia erreferentziazko ikastetxe publikoarena izango da, eta erreferentziazko ikastetxea izango da LZn ezarritakoa edo, bestela, asteko lanaldiaren dedikazio-portzentaje altuena duena.
- Ikasleekiko esku-hartzea ikasturtearekin batera hasi eta hezkuntzako gainerako profesionalen kolektiboek bukatzen duten egunean amaituko da.
- Iraileko lehen hamabostaldia bestelako profesionalekin eta familiekin koordinatzera bideratuko dute, balorazio berriak egiteko, halakorik balego, eta ikasleen curriculumaren egokitzapenak edo lan-plangintzak egiteko. Horrez gain, haien ordutegia eta egutegia ere ezarriko dituzte (lan-plangintza).
- Ekainean eskolak bukatu ondoren, banakako txostenak egingo dituzte, gero irakasle tutoreei eta HLBPen aholkularitzei entregatu beharrekoak, baita urteko memoria ere.
- Asteko lanaldia Lehen Hezkuntzako irakasleena izango da, 30 ordukoa, honela banatuta: 23 ordu ikasleekin esku hartzeko eta 7 ordu beste jarduera batzuetarako.



- Lanaldia lan egiten duten ikastetxearena edo ikastetxeena izango da, goiz eta arratsaldekoa edo trinkoa. Lanaldi trinkoan lan-plangintza egokituko da, ikasle guztiei behar bezalako arreta ematen dietela bermatzeko. Ostiraletako ordutegia erreferentziazko ikastetxekora egokituko da.
- EHI irakasleek eta logopedek ikasleekin arreta zuzena abiarazten duten ikastetxean hasiko dute lanaldia, nahiz eta hori ez izan beren erreferentziazko ikastetxea.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA PRESTATZEKO ETA KUDEATZEKO PROZEDURA

Prozedura hau aplikatu beharko da bai egutegiaren eta ordutegiaren hasierako prestaketan eta izapidetzean, bai aldaketak egin behar direnean ikasleak artatzeko inguruabarrak aldatu direlako (iraupena, intentsitatea...), edo aurreikusi gabeko egoerak gertatu direlako.

HLE-en egutegi-ordutegia (lan-plangintza) prestatzea:

1. Ikastetxeko zuzendaritzak HLE-en ordutegia osatuko du eta, horretarako, HLBPen aholkularitzaren, irakasle tutoreen, aholkulari edo orientatzailearen, pedagogo terapeutikoen eta HLE-en beraien lankidetzaz izango du.

Ordutegia osatzeko, beste alderdi batzuen artean, zehaztu beharko du zenbat HLE beharko diren jangelako arretarako, HPBak dituzten ikasleen beharren arabera. Horretarako, dagokion HLBPen aholkularitzak ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

Horrez gain, bai lanaldi erdian dauden langileei, bai lanaldi osoan daudenei dagokienez, aintzat hartuko dira 2018ko apirilaren 13an sinatutako akordioan jasotako baldintzak, arreta zuzeneko orduen banaketari, koordinazioari, materiala prestatzeari eta abarri buruzkoak.

2. Ikastetxean bilduta, zuzendaritzak (edo eskuordetu duen profesionalak) HLE-ei eta HLBPen aholkularitzari aurkeztuko dizkie arretaren banaketa eta horren intentsitateak. HLBPen aholkularitzak ontzat joko du ordutegia egiaztatu ondoren artatu beharreko ikasleak eta intentsitateak aholkularitzak berak aurreikusitakora egokitzen direla. Bilera horri dagokion akta egingo da.
3. Zuzendaritzak HLE-en ordutegia ordutegi-taulak kudeatzeko aplikazio informatikoan (EED) sartuko du. Ikasturtean zehar ordutegian egiten diren aldaketa guztiak ere EEDean jaso beharko dira. HLE bakoitzaren ordutegian zehatz-mehatz jasoko dira egin behar dituen zereginak, banaketa honen arabera:



- Arreta zuzena ikasgelan
 - Arreta zuzena patioan (autonomia programan hala agertzen bada)
 - Arreta zuzena jantokian edo/eta jantokiko patioan (autonomia programan hala agertzen bada)
 - Koordinazioa
 - Materiala prestatzea
 - Bazkaltzeko denbora (konputagarria denean)
4. Ikasleen arretarako ordutegia baietsi ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak, edo irakasle-aholkulariek edo orientatzaileek W67 aplikazioan erregistratuko dute HLE-en laguntzaren intentsitate zehatza HPBak dituen ikasle bakoitzarentzat (atala: Laguntza Datuak – Ikastetxeko Pedagogia Terapeutikoa eta Hezkuntza Laguntzako Espezialistak).

Fisioterapeuten egutegi-ordutegia (lan-plangintza) prestatzea:

1. Fisioterapiako espezialistek beren lan-plangintza osatuko dute HPB aholkularitzekin koordinatuta ezarritako jarduketa-irizpideen arabera.
2. Irailean zehar, HLBPen aholkularitzei aurkeztuko dizkiete erreferentziazko ikastetxearen egutegia eta dagozkion eranskinak behar bezala beteta (I. eranskina –Asteroko ordu-banaketa–, II. eranskina –Ordu-zenbaketa osoa–, III. eranskina –Esleitutako ikastetxeen ordutegiak– eta IV. eranskina –Ikasleen zerrenda–).
3. Berritzeguneko zuzendaritzak bere oniritziarekin izapidetuko du dokumentazio hori Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, zeinak 15 eguneko epea izango baitu egoki irizten dituen aldaketak egiteko. Kontrako kasuan, onartutzat emango da.
4. Lurralde-arduradunak I. eta II. eranskinak igorriko dizkio Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntza Berriazko Premien Zerbitzua).

Okupazio-terapeuten egutegi-ordutegia (lan-plangintza) prestatzea:

1. Okupazio-terapiako espezialistek, HLBPen aholkularitzekin koordinatuta, ikasturtearen hasieran prestatuko dituzte Ikasleen zerrenda (I. eranskina) eta Asteko ordu-banaketa (II. eranskina).
2. Berritzeguneko zuzendaritzak bere oniritziarekin izapidetuko du dokumentazio hori, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, zeinak 15 eguneko epea izango baitu egoki irizten dituen aldaketak egiteko. Kontrako kasuan, onartutzat emango da.
3. Lurralde-arduradunak I. eta II. eranskinak igorriko dizkio Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntza Berriazko Premien Zerbitzua).



Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzaren baimena jaso ondoren, lan-plangintza aldatu ahalko da (aurrematrikulazio-aldian eta materialen eskaera- eta jasotze-uneetan, edo oztopo arkitektonikoak ezabatzerakoan, nagusiki).

ZHlen egutegi-ordutegia (lan-plangintza) prestatzea:

1. Ikastetxeko zuzendaritzak ZHlen ordutegia prestatuko du irakasle orientatzaileekin, ikasle gorra eskolatzeko koordinatzailearekin eta ZHlen beraien laguntzarekin lankidetzan..
2. Iraileko lehen hamabostaldian zehar, berritzeguneko zuzendaritzari igorriko dio berrius dezan (I. eranskina –Egutegia– eta II. eranskina – Ordutegia–), ikastetxearen egutegiarekin eta inplikaturako ikasleen ordutegiarekin batera. Berritzeguneko aldaketaren bat egitea proposatzen badu, ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio.
3. Berritzeguneko zuzendaritzak bere oniritziarekin izapidetuko ditu egutegiak eta ordutegiak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, zeinak 15 eguneko epea izango baitu egoki irizten dituen aldaketak egiteko. Kontrako kasuan, onartutzat emango dira.
4. Lurralde-arduradunak bi eranskinak igorriko dizkio Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntzako Berriazko Premien Zerbitzua).

EHI-logopeden egutegi-ordutegia (lan-plangintza) prestatzea:

1. EHI irakasleek eta logopeda lan-kontratadunek antolatuko dituzte esleitutako ikastetxeen ordutegia eta ikasleen zerrenda lan-plangintza batean, zeinaren jarduketa-irizpideak HLBPen aholkularitzekin koordinatuta ezarriko baitira.
2. Irailaren 30a baino lehen, plangintza aurkeztuko diete HLBPen aholkularitzari, erreferentziako ikastetxeko egutegiarekin eta dagozkion eranskinekin (behar bezala beteta) batera (I. eranskina –Asteko ordu-banaketa–, II. eranskina –Ordu-zenbaketa osoa–, III. eranskina – Esleitutako ikastetxeen ordutegiak– eta IV. eranskina –Ikasleen zerrenda–).
3. Berritzeguneko zuzendaritzak bere oniritziarekin izapidetuko du dokumentazio hori Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan, zeinak 15 eguneko epea izango baitu egoki irizten dituen aldaketak egiteko. Kontrako kasuan, onartutzat emango da.
4. Lurralde-arduradunak I. eta II. eranskinak igorriko dizkio Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari (Hezkuntza-Laguntzako Berriazko Premien Zerbitzua).



PRESTAKUNTZA

Prestakuntza lotuta egongo da Hezkuntza Administrazioak kolektibo horiei esleitutako eginkizun eta zereginei, kolektibo bakoitzaren lanaren espezifikotasuna kontuan hartuta. Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria erabakiko du prestakuntzaren nondik norakoak, Hezkuntza Sailaren behar eta lehentasunen arabera. Aintzat hartuko dira inplikaturako kolektibo profesionalen proposamenak.

Prestakuntza ekaineko azken astean edo, salbuespen gisa, iraileko lehenengoan egingo da. Prestakuntza hori dagokion berritzeguneak antolatuko du, eskualdekoa denean, edo Berritzegune Nagusiak, esparrua eskualdetik haragokoa denean.

Berriazko alderdiak:

- **Fisioterapeuta, okupazio-terapeuta eta ZHlen** prestakuntza lurralde artekoa izango da beti, eta Berritzegune Nagusiak antolatu eta kudeatuko du. ZHlen kolektiboaren prestakuntza antolatu eta kudeatzeko, Berritzegune Nagusia ikasle gorra eskolatzeko koordinatzaileekin arituko da lankidetzan.
- **EHI-logopeda eta HLE-en** prestakuntza eskualdekoa, eskualde artekoa, lurraldekoa edo lurralde artekoa izan daiteke.

KOORDINAZIOA

Irakasle, HLBPen aholkularitza eta ikasleen arretan inplikaturako gainerako profesionalakiko koordinazioa ikasle bakoitzaren lan-plangintzetan ezarritako uneetan egingo da.

Ikasleei buruzko txostenak, euren lan-programak eta horien ebaluazioa irakasle tutoreei entregatuko zaizkie, ikasle bakoitzaren JPPan sar ditzaten. Halaber, kopia bat igorriko zaio HLBPen aholkularitzari.

HLBPen aholkularitzekiko koordinazioa berritzegunean edo ikastetxean egingo da, horietako bakoitzak xede horretarako erabiltzen dituen egunetan.

Kolektibo bakoitzeko profesionalen arteko koordinazioak ere egon daitezke, baita, unean-unean, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak eskatutako koordinazioak ere.

HLE-en koordinazioko berriazko alderdiak:

- **Koordinazioa ikastetxean:**
 - Gainerako profesionalekin (irakasleak, okupazio-terapeutak, HLBPen aholkulariak, fisioterapeutak eta EHI-logopeda espezialistak) batera lan egiteko HLE-ek egiten duten ekarpenaren garrantzia dela eta,



beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira koordinazio-lanetarako une horiek bermatzeko.

- Kolektibo horrentzat egiten den lan-plangintzak koordinazio-lanetarako uneak bermatu beharko ditu ikastetxean koordinazio-lanetarako eta materialak prestatzeko orduen barruan; hau da, asteko 2 ordu eta 30 minutuen barruan (lanaldi osoa) edo asteko 1 ordu eta 15 minutuen barruan (lanaldi erdia). Plangintzak barne hartu beharko ditu koordinaziorako egunak eta orduak, horien xedea eta eragileak.
 - Ikastetxeko zuzendaritzak ahalbidetuko du HLE-ek klaustro saioetan parte hartzea, baldin eta beren lan jarduerari lotutako gairen bat bilerako gai-zerrendan sartzeak justifikatzen badu, eta koordinazio orduetan egiten bada.
- **Koordinazioa/prestakuntza dagozkion berritzeguneetan.** Materialak prestatzeko asteko 2 ordu eta 30 minutuen barruan (lanaldi osoa) edo asteko 1 ordu eta 15 minutuen barruan (lanaldi erdia), ikasturtean zehar banatutako 4 saiotarako (lehenengoa irailean eta azkena ekainean) denbora gordeko da. Denbora-antolaketak ez dio eragin behar ikasleen arreta zuzenari. Horretarako datak irailaren lehenengo hamabostaldian ezarriko dira.

EHI-logopeden koordinazioko berariazko alderdiak:

EHI irakasleek eta logopeda lan-kontratadunek lantaldeak antolatu ahalko dituzte berritzegune baten edo batzuen artean eta, horretarako, urtean gehienez ere 2 orduko 4 bilera egin ahal izango dituzte (ostiralean edo arratsalde batean).

Horretarako, koordinazio-plan bat egin beharko dute, alderdi hauek zehaztuta: koordinatzailea, parte-hartzaileak, bilera-egutegia (eguna, lekua eta ordutegia), lan-proposamena (helburuak, edukiak, jarduerak...) eta parte-hartzaile guztien onespena. Plana lurralde-arduradunari aurkeztuko zaio urriaren 31 baino lehen, berrikusi eta onetsi dezan.

Koordinatzaileen eginkizunak izango dira:

- Koordinazio-plana aurkeztea: helburuak, edukiak, datak...
- Bilera bakoitzaren akta egitea.
- Akta hori lurralde-arduradunari bidaltzea.
- Ikasturtea bukatzean memoria aurkeztea (proposatutako helburuen lorpen-maila, aktak, balorazioa, sortutako materialak, etab.).

Okupazio-terapeuten eta fisioterapeuten koordinazioko berariazko alderdiak:

Okupazio-terapeuten eta fisioterapeuten barne-koordinazioa lurraldekoa eta lurralde artekoa izango da. Lurralde-koordinaziorako, kolektibo bakoitzak plan bat sortuko du bere lurraldean, EHI-logopeden planaren ezaugarri berberekin (ikusi aurreko atala), non koordinatzaileen zereginak ere aurreko ataleko berberak izango diren. Horretarako, urtean gehienez ere 2 orduko 4 bilera egin ahal izango dituzte (ostiralean edo arratsalde batean). Bilera horiek online izango dira.



Fisioterapeuten kasuan, lurralde arteko koordinazio-bileretan lurralde-koordinatzaileek parte hartuko dute, eta konpromisoa hartuko dute landutako gaiak kolektiboko gainerako kideei jakinarazteko. Okupazio-terapiako espezialisten kasuan, kolektibo osoak parte hartuko du.

Berritzegune Nagusiak koordinatu eta deituko ditu okupazio-terapeuten eta fisioterapeuten lurralde arteko koordinazio-bilerak, jarraian agertzen diren egunetan; lekua bilerak egin aurretik jakinaraziko da:

Okupazio-terapeutak	Fisioterapeutak
Urriaren 20a	Urriaren 21a
Abenduaren 15a	Urtarrilaren 13a
Martxoaren 9a	Apirilaren 21a
Maiatzaren 4a	Ekainaren 9a

Okupazio-terapeutak laguntza-produktuen fabrikazio- eta banaketa-enprekin koordinatu beharko dira, material horiek eskatu eta jasotzeko.

GURASOEKIKO HARREMANAK

Jarraibide hauen xede diren espezialistek beren eskumenen esparruan, eta irakasle tutoreekin lankidetzan, ikasleen legezko ordezkariari informazioa emango diete, horretarako ezartzen den maiztasunarekin.

Berariazko alderdiak:

- Ikasle gorren familiak artatzeko, **ZHI**az gain, ikasle gorrak eskolatzeko lurralde-koordinatzaileak ere lagunduko du.
- **EHI-logopedak eta fisioterapeutak**. Maiztasuna hiru hilez behingoa izango da, eta lehenengo eta azken bilerak bat etorriko dira ikasturtearen lehenengo eta azken egunekin.
- **Okupazio-terapeutak**. Horrez gain, beharrezkotzat jotzen denean, jarraibideak emango ditu egokitzapenen eta laguntza-produktuen maneiu eta erabilerari buruz, baita hainbat okupazio-esparrutan ikaslearen autonomia hobetzeari buruz ere.

Vitoria-Gasteizen, sinadura-datan

Lucía Torrealday Berrueco
ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA